

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5259

EBAZPENA, 2021eko urriaren 1ekoa, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremuetako 2021erako prestakuntza-bekak esleitzen dituen.

Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariaren 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremuetarako prestakuntza-beken deialdia egin zen, eta 2021eko abuztuaren 25eko EHAA n argitaratu zen, 169. zenbakian.

Ebazpen horren 8. artikulua ezartzen duenez, eskabideak balorazio-batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu.

Era berean, ebazpen horren 9. artikulua adierazten duenez, balorazio-batzordeak esleipen-proposamen bat egingo du, eta LEA/AVCko lehendakariari helaraziko dio. Hark, egindako proposamena ikusita, bekak ematea erabakiko du, banaka jakinaraziko den ebazpen baten bidez. Ebazpena, gainera, LEAren webgunean eta EHAA n argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Balorazio-batzordeak esleipen-proposamena egin du, deialdiaren ebazpenaren 9. artikuluekin bat etorritik.

Horregatik guztiatik, eta balorazio-batzordearen proposamena kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremuetako 2021erako prestakuntza-bekak pertsona hauei esleitzea:

1.– Carro Andollo, Raquel: 94 puntu.

2.– Bello Pajares, Soraya: 74 puntu.

Bigarrena.– Eskabide hau atzera egindakotzat jotzea, arrazoi honengatik:

1.– Iragorri Litago, Leire: berak eskatuta.

Hirugarrena.– Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremuetako 2021erako prestakuntza-bekak ukatzea pertsona hauei, hautaketa-prozesuaren bigarren fasera igartzeko gutxienezko puntuazioa lortu ez dutelako (gutxienez 25 puntu):

1.– Peñalba Rebolledo, Leire: 20 puntu.

2.– Calvo Sagastuy, Josu: 22 puntu.

3.– Cerro Rastrollo, Asier: 10 puntu.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke LEA/AVCko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke

2021eko urriaren 15a, ostirala

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren aurka, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Bilbao, 2021eko urriaren 1a.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakaria,
ALBA URRESOLA CLAVERO.